



#mareaurdina

MAREA URDINA ELKARTEA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen
inklusioaren aldeko taldea

2023 URTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

| | |
|--|----------|
| 1. ELKARTEAREN HELBURUA | 3 |
| 2. GENERO ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA | 4 |
| 3. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK | 5 |

1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldian ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.


Iaz Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.

Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik... inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkarteak egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.



Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.





2. GENERO ERAGINARI BURUZKO INFORMAZIOA

Marea Urdina Elkartearen helburua inklusioa da, aniztasun funtzionala duten pertsona ororen inklusioa, neska, mutil edo generorik gabeak izan.

Generoaren ikuspegiaren gainera dago gure begirada, gure bailaran bizi den pertsona guztiak gizartearen parte izateko eskubidea izateko egiten dugu lana, hezkuntza, kirolean, aisialdia eta kulturean.

Datu batzuk ematearren:

- **Gure talde eragilean 4 emakumezko eta 3 gizonezkoak osatzen dugu.**
- **Elkartearen bazkideetatik 13 neska eta 12 mutilak dira.**
- **Antolatzen ditugun egitasmo eta sentsibilizazio ekintza guztietan neska eta mutilak era berdintsuan parte hartzen dute (ikus grabatuta ditugun bideoak edo irudiak).**

Horregatik gure leloa “Denok gara Marea Urdina” izan ohi da.



3. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2022 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

Web orrian: <https://www.mareaurdina.org/>

Facebook: <https://www.facebook.com/mareaurdina2018>

Twitter: <https://twitter.com/mareaurdina>

Instagram: <https://www.instagram.com/mareaurdina/>

Blogger: <https://mareaurdina.blogspot.com/>


Youtube: <https://www.youtube.com/mareaurdina>



GLU GLUREKIN KOLABORAZIOA

Marea Urdinak GLU GLU produktorearekin kolaboratu dugu entzumen urritasuna duten pertsonak Munduari itzulua 80 egunetan antzerkiak teknologia berrien bitartez goza dezaten.

- Urtarrilak 13 eta 14 Villabonako Gurea Antzokian
- Urtarrilak 15 Zumaiaiko Aita Mari Antzokian.





#mareaurdina

HUEZIKOEN BISITA

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko "Eskola inklusiboa" moduloko ikasle talde jator bat izan genuen gure elkartearekin ezagutzen. Etorkizuneko irakasleak izango direnak aniztasun funtzionalari buruz sentibilizatzen baditugu, izango dugun munduan ez dugu inklusiotaz hitzegun beharrik izango. Gora zuek! Segi horrela!





#mareaurdina

BIBA ZUEKEN BIDEOKLIP AURKEZPENA.

Atzo Bibazuek!-en egon ginen gure bideoklip berriua aurkezten. Mila mila esker bideoklip eta abestia egitea posible egin zenuten guztioi, ez zaituztegu ahazten. Mila esker Bizipozari aukera hau emateagatik, daukagun bizipoza baita guzti hau egitera bultzatzen gaituena. Bibazuek!





ANAITASUNEN EGUNA.

Otsailak 11 Anaitasuna eta Marea Urdinaren eguna antolatu dugu, bazatoz?

11:00. Realeko Liga Genuineren eta

Anaitasunaren partida inklusiboa.

12:00-13:30. Sentsibilizazio jolasak.

12:30. Kalejira, Bizkargiko trikitilariekin eta pandero-jotzaileekin.

13:30. Bazkaria.

16:30. Emakumeen Euskal Ligako partida: Anaitasuna-Eibar.





URDINDUZ

Urdinduz izan da 2023an antolatu dugun egitasmo potenteenetako bat.

Orokorrean informazio guztia ondorengo web orrian duzue informazio guztia:

<https://www.urdinduz2023.org/>

Ondoren egin ziren ekintza batzuk azaltzen ditugu.



Bideo guztiak ondorengo erreproduzio zerrendan ikusi ditzazkezue:

https://youtube.com/playlist?list=PLdClw2Q4MX_ocXODh_-O51HdD2Y8UKt8l&feature=share



URDINDUZ IGERIKETA EGOKITUKO SARIA.

Urdinduz egitasmoaren barruan Apirilak 1ean Urdinduz Igeriketa Egokituko Saria antolatu dugu. Sari honen lehenengo zatia federatu gabeko eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat izango da, edozein dela bere igeriketa maila (25 eta 50 metroko proba izango dute aukeran)



Hemen laburpen bideoa:

https://youtu.be/mD3_Hb8uLiw?feature=shared



MURAL ERRALDOIA

Antolatu ditugun hainbat ekintzetan erakutsi du Azpeitiak bere izaera inklusiboa, oraingo honetan ordea, Gautena eta Marea Urdinak antolatutako Urdinduz ekimenaren aitzakiarekin, horren konstantzia uzteko asmotan mural erraldoi bat egitea adostu dugu udalarekin. Mila esker Azpeitiko Udala, zuek ere URDIN!

Hemen murala nola egin zenaren bideoa:

https://youtu.be/_XKBAFm4j9k?feature=shared

Murala bibazueken:

<https://youtu.be/NLU05d9QnIA?feature=shared>



Azpeitia
Denontzat



URDINDUZ SEXBERDINAK ANTZEZLANA:

Hementxe laburpen bideoa:

<https://youtu.be/5kJait3TR4Q?feature=shared>

URDINDUZ BERTSO SAIOA:

Hementxe laburpen bideoa:

<https://youtu.be/ldr0XDLns7M?feature=shared>

URDINDUZ DANTZA INKLUSIBOA

Hementxe laburpen bideoa:

<https://youtu.be/8AGvutiWreY?feature=shared>

URDINDUZ AUTISMOAREN ALDEKO MARTXA SOLIDARIOA

Hemen martxaren laburpen bideoa:

<https://youtu.be/GHQx4AgNj4k?feature=shared>

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS-en BABESA URDINDUZ-i

Hemen martxaren laburpen bideoa:

<https://youtu.be/o6VU4lvZmDs?feature=shared>



#mareaurdina

IRURAKO IKASTOLAREN BABESA.

Irurako ikastolak elkartasun astea egin dute Marea Urdinaren alde. Mila esker! Zuek ere URDIN!





POL MAKURIREN HITZALDIAK: ¿POR QUE NO?

Gogoratu datorren ostiralean bi hitzaldi emango dituela Pol Makurik Azpeitian eta Azkoitian LH5 eta LH6ko ikasleentzat. Horretaz aparte gurekin izango dugu larunbateko Trail Martxa Urdinan.

Bazatoz?







DUATLOI INKLUSIBOA

laz izan genuen bezala, datorren larunbatean Apirilak 29, Duatloi inklusiboa izango dugu Azkoitian. Aniztasun funtzionala duen pertsona orok parte hartzeko aukera izango du, horretarako ibilbidea egokituko zaiolarik.

Goizean umeen txanda izango da (LH6 arte) eta arratsaldean Duatloi Popularra (DBH2tik aurrerakoentzat).

Hau ondo antolatu ahal izateko lasterketa egokitua egitea nahi duenari gure bitartez izena ematea eskatzen dizuegu info@mareaurdina.org helbidean





#mareaurdina

DOMUSA TEKNIK 40MLK-EAN ANOA GUNE URDINA

Honezkero badakizue Domusa Teknik 40 MLK lasterketako anoa gune garrantzitsuena inklusioaren anoa gunea izango dela, badakizu zer bilatuko duzun bertan? Hemen duzue egitaraua.

Zatozte ikasberriko aparkalekura, zatozte inklusioaren anoa gunera, ANOA-GUNE URDINA-ra.

Zuek ere URDIN!



maiatzak 6

11:00etatik 18:00etara

Anoa-Gune urdina (Ikasberriko aparkalekua)

Aktibitateak:

11:00 I MARTXA URDINAREN IRITSIERA eta INKLUSIOAREN ALDARRIKAPENAREN IRAKURKETA



11:00 ATRACCIONES SANZ-en
18:00 PUZGARRIAK

ATRACCIONES
SANZ

12:30 LEHEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA



11:00 SENTSIBILIZAZIO JOLASAK eta PHOTOCALL URDINA



12:00 EUSKO LABEL-en ESKUTIK
16:00 PINTXO ETA EDARIAK



16:30 #40MLKERRONKA23 SARI BANAKETA



17:45 AZKEN KORRIKALARIARI ONGI ETORRIA





TRAIL MARTXA URDINA

Gogoratu larunbatean guztiontzako tokia izango duen ibilbidea antolatu dugula, Trail Martxa Urdina hain zuzen ere. Zatozte gurekin eta gonbidatu ikasfamiak ekintza honekin bat egitera, eskubide berdintasunak aldarrikatuz. Zain izango zaituztegu Azpeitiko plazan, larunbatean maiatzaren 6an, 9:30ean.

Martxa hau Domusa Teknik 40 MLK-ko Anoa-Gune garrantzitsuenean bukatuko da, Anoa-Gune Urdinan.

Bazatuz?





IKAS KIROL KROSA

Aurtengo Ikas Kirol Krossa inoiz baino inklusiboagoa izango da, antolakuntzatik eta Marea Urdinatik aniztasun funtzionala duten ume guztiak animatu nahiko genituzke kirolaren festa zoragarri honetan parte hartzera. Animatu eta zatoz Ekainak 4ean Azkoitira!



#mareaurdina

IKAS KIROL KROSS

inklusiboa

ekainak 4 2023 igandea

Taldeak eta irteerak

| | | | |
|------|---------------|---------|-----------------|
| NH 4 | 10:30 (400 m) | LH 3 | 11:15 (1.100 m) |
| NH 5 | 10:45 (400 m) | LH 4 | 11:25 (1.100 m) |
| LH 1 | 10:55 (550 m) | LH 5 | 11:35 (1.550 m) |
| LH 2 | 11:05 (550 m) | LH 6 | 11:45 (1.550 m) |
| | | DBH 1/2 | 11:55 (2.000 m) |

12:30ean Sari banaketa

Ibilbidea
buruzko informazioa

ANTOLATZALEAK: UDABERRI, GIBERO EKIBATZ

LAGUNTZALEAK: AZKOITIA, XABIER MUNIBE

EKE
ESKOLA KIROLA EGOKITUA eta INKLUSIBOA

AZKOITIA Udala

#mareaurdina

ONDARROAN HITZALDIA

Aste honetan Ondarroa BHI-ko Erizaintza Zainketa Osagarriak zikloko ikasleei Marea Urdina zer den azaltzen izan gara. Osasungintza bezalako arlo garrantzitsu batetan aniztasun



#mareaurdina

funtzionala duten pertsonetako profesional sentzibilizatuak izateak duen garrantzia azpimarratu diegu. Gora Ondarroa BHI! Zuek ere URDIN!



GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN FESTAN PARTE HARTZEA

Ohore bat guretzat han izatea eta futbol egokituan egiten hari zareten lanak gure egunerokotasunean duen garrantzia azaltzea. Zorionak! Segi horrela!



BIZIPOZA EGUNEAN

EKAINAK 18 : EGUN OSOKO BIZIPOZA JAIAMASA-VILLABONAN.

Egun osorako egitarau zabala, alaia, partehartzailea eta doakoa.



Euskara, kultura eta elkartasuna eskutik helduta!

Bizipoza Elkartea Euskal Herriko 36 elkarte osaturiko sarea da Bizipoza elkarte: izaera bereziko gaiak jorratzen dituzten haur eta familiez osaturiko taldeak biltzen ditu, hain zuzen, euren eskubideak betetzear borrokan eta lanean dihardutenak.

Marea Urdina ere han izango da eta beste elkarteekin batera stand bat izango dugu elkartearen berri eman eta gure produktuak zuen eskura jartzeko.

BIZIPOZA JAIA

Ekainaren 18an 2023
AMASA-VILLABONA (GIPUZKOA)

ERREBOTE PLAZA

- 10:00 Loatzo musika eskolako lagunekin kalejira herrian zehar.
- 10:45-14:30 Bizipozako elkarten gunea.
- 11:00 Go-lazen-eko lagunen ikuskizuna.
- 11:30 Besamotza konpartsa. Erraldoien eta buruhandien kalejira.
- 11:30-13:30 Haurrentzat jolasak, **Irrika Aisialdi Elkartearen** eskutik.
- 11:30-13:30 Haurrentzat eskularen guneak, **Zubimusu Ikastolaren** eskutik.
- 12:30 Kantujira. Aiztondo, Irura eta Anoetako abeslari, Kukua abesbatza eta Asteasuko abesbatzarekin.
- 13:30 Eskertza eta aitortza ekitaldia.
- 15:00 Eresargi abesbatzako lagunen emanaldia.
- 16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotsekin **IRRI, KANTU ETA DANTZA**.
- 17:30 Ndank Ndank elkartearen musika emanaldia.
- 18:00 Xabi Solano eta Zigor DZ.
- 19:00 Jaiaren itxiera.

BERDURA PLAZA

- 11:00-15:00 Etiopia Utopia Elkartearen eskutik, pintxoak eta ogitartekoak.
- 17:50 Txokolatada.

Gora Bizipoza!

BIZIPOZA OSATZEN DUTEN ELKARTEAK

FAKTORIAN HIZLARI



Atzo Euskadi Irratian Faktoria Magazine saioan aniztasun funtzionala duten pertsonentzako barraka egokituen inguruan hitzegiteko aukera izan genuen. Bertan orain dela bost urtetik gure bailarako udalek eginiko esfortzuaren laburpen bat egiteko aprobetxatu genuen.

Balio dezala bideo honek gure esker ona adierazteko Azpeiti eta Azkoitiko Udalei, besteentzat eredu izan zarete.

Zuek ere URDIN!





IZETA MENDI LASTERKETA

Izeta Sagardotegiak Bikote-Lasterketa Solidarioa antolatu berri du Irailaren 17rako eta gauzak nola diren, bertatik ateratako irabaziak Marea Urdinari dohaintzan emango dizkiola adierazi digute antolatzailek. Mila mila esker Izeta Sagardotegiari, zuek ere URDIN!




Hemen bideo laburpena:

<https://youtu.be/KZVoXCQPKjk?feature=shared>



KONTZIERTOETAN GUNE BEREZIA

Uztailaren 31 eta abuztuaren 1ean plazan izango diren kontzertuetarako, gurpildun ahulkian dauden edo mugikortasun arazoak dituztenentzat gunea egokituko du Azpeitiko Udalak. Zehazki, uztailaren 31ko Chambaoren kontzertua eta abuztuaren 1ean Bulegoren kontzertua ikusteko egokituko da gunea. Neurri honekin, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak festaz hobeto gozatzeko pauso bat eman nahi izan du udalak. Azpeitia Denontzat! Gora zuek! Zuek ere URDIN!



Hemen bideo laburpena:

<https://youtu.be/mRpEh6qtcWQ?feature=shared>



#mareaurdina

HAZI HEZI ALDIZKARIAN ELKARRIZKETA

Aurtengo udako Hazi Hezi aldizkarian gure elkarteko den Gorka Aranbarrik beraien alaba Norarekin bizi izan zutena azaltzen du, "Gauzak ez doazenean ongi" izenburuarekin, benetan interesgarria. Gora zuek!

Gauzak ez doazenean ongi

Haur bat espero denean dena ongi joatea espero da: haurrak arazo esanguratsurik ez izatea. Horregatik, arrazoiren batengatik gauzak ondo ez doazenean, dela gaitz batengatik, erditzeko prozesuagatik, berezitasun batengatik edo zailtasunen batengatik, gurasoak galduta senti litezke. Diagnostiko egunetik eguneroko bizimodurako bidea noia egin litekeen jasotzen dute lerrook, bizipenen eta terapien bitartez. Jarraian, bidean laguntzeko gakoak eta erreferentziak.

Guraso izateko erabakia hartzean haur horren beharrei erantzuteko konpromisoa hartzen da, ahal den neurrian. Haur guztiek izaten dituzte antzerako beharrak, ezberdinak izanagatik, baina badira behar bereziak dituztenak ere.

Erreportaje honetan behar berezi horiei buruz ariko gara eta behar berezi horiek detektatzeko, bideratzeko eta sozializatzeko moduz. Bide-lagun izango ditugu, **Mireia Centeno Gutierrez psikologoa, Ulertuz Elkarteko erabiltzaile den Eider Larreategi Arana, Nuala Elkarteko Brigida Iriondo Zubiaurre, Marea Urdinan dabilen Gorka Aranbarri eta Biak bat Elkarteko Josune Azpiroz Imaz.** Gauzak ez doazenean ondo, gauzak ondo egin litezke.

Mireia Centeno terapeutari gaitz edo berezitasun bat diagnostikatzearen uneaz galdetu diogu: "Lanketa bat egiten ari gara jendaratean, baina oraindik ere normal hitza erabiltzen dugu eta badugu zer hobeturi. Guraso gisa, haur bat

duzunean, zuretzat normal denaren barruan bisualizatzen duzu hura. Umea normaltasun horretatik ateratzen hasten denean, segun eta normatik zenbat aldentzen den, gehiago edo gutxiago kostako zaizu honi onartzea. Familiarekin lanean ari garenean, zaila izan arren, honi ere kontuan hartu behar da; psikologoaren ezaugarri bat horrek ere izan behar du, hain zuzen; pazientzia izan behar da gurasoen eta

"Denbora behar izaten da errealitatea onartzeko eta onarpenaren bidean, bakoitzak bere erritmoa eta modua aurkituko ditu"

Mireia Centeno
Psikologoa

ANIZTASUN FUNTZIONALA



sunaz duzun ideia moldatu behar duzu, aurretik beste ume bat izan baldin baduzu errazago jabetzen zara besteekiko ezberdintasunaz; lehena baldin bada, zailago da konturatzea, konparatzerik ez duzulako. Esate baterako, zure haurtzaroa oroitzen duzunean edo gurasoekiko zenuen harremana... Ez zaizu ezaguna egiten, ez du zerikusirik. Une horretan, gauza bat amaitzen da eta beste bat hasi, gauza bat moztu behar duzu beste batekin hastekotan". Komplexuena asimilazioa dela gaineratu du, dolu antzeko bat egin behar dela, buruan zenuenaren eta errealitatearen arteko dola. "Bakardade handia" sentitzen dela aitortu du eta oso garrantzitsua dela Nuala bezalako elkarte bat inguruan izatea, biera batzuetara joan eta etxean dagoen egoera ulertu ahal izateko,

epaik eta begirada arrarorik gabe: "Norbaitekin hitz egitea funtsezkoa da, neurotipikoak diren haurren gurasoek nekez ulertuko baltzaituzte", Nuala Elkartean topatu eta sortu du aterpea Iriondok, Elgoibar inguruko gurasoei eta haurrei edo nerabeei laguntzen dien taldea da: "Nuala Barner irlandarra ezagutu genuen gizarte zerbitzuei esker, haurrei txakurrekiko harremanak eragiten dizkien onuzer aritu zen, bere bizipen propioez, eta inspiragarria izan zitzaizgun, gure haurrak 2 urte zeuzkenean, autismoa diagnostikatu berrikan, sortu genuen Nuala Elkarte". Hitz egiteko txoko bat eratzeaz gain, aisialdi eskaintza sortzeko eta herrian eragiteko darabilte elkarte; inklusioari begira, musikoterapia alorari bultzatu zuten Elgoibarko Musika Eskolan. Euren lana zabaltzen ari dira, elkarte



#mareaurdina

NAIZ IRRATIAN HIZLARI

Gaur Naiz Irratian izan gara Bigarren Kafea saioan, bertan Marea Urdinari buruz azalpenak eman ditugu. Mila esker gure mezua zabaltzen laguntzearren, zuek ere URDIN!





URTEKO ASANBLADA

Marea Urdinaren urteko asanblada egingo dugu Azkoitiko Elkargunean, animatu, denentzako irekia da!



#mareaurdina

MAREA URDINA-ren URTEKO ASANBLADA IREKIA

- Eguna: Irailak 26 **ASTEARTEA**
- Ordua: 19:00etan
- Lekua: **ELKARGUNEA Oteiza Aretoa (Azkoitia)**
- Gaiak: - 2022 Urtean egindako ekintzak
- 2022ko Balantze Ekonomikoa
- Marea Urdina Ziurtagiriak 2022
- Etorkizuneko erronkak



ESKOLA KIROL EGOKITUAREN AURKEZPENA



#mareaurdina

Aurkeztu genuen Azkoitian aniztasun funtzionala duten pertsonak kirol egokitua egiteko duten aukera. Animatu eta eman zure izena!



DEUSTOKO IKASLEEKIN ELKARLANA



Deustoko Fisioterapia eta JFKZ graduko ikasle eta irakasleekin izan gara. Gorputz adierazpeneko irakasgaietan, proiektu bat gauzatu dute gurekin elkarlanean, aniztasun funtzionala duten pertsonen artean giza motrizitatea bultzatuz. Gora zuek! Zuek ere URDIN!



DOMUSA TEKNIK 40MLK 2024 AURKEZPENEA



#mareaurdina

Aurkeztu da Domusa Teknik 40 MLK-n inguruan izango diren urteko ekintzak eta nola ez lasterketa bertan. Marea Urdinatik: Anoa Gune Urdina, Trail Martxa Urdina, sensibikizazio hitzaldiak Azkoitia eta Azpeitiko ikastetxeetako umeei...





#mareaurdina

SAN ANDRES IGERIKETA SARI INKLUSIBOA



Hemen bideo laburpena:

<https://youtu.be/UqemUlrDI1U?feature=shared>



#mareaurdina

BIZIPOZA JARDUNALDIA

Bizipoza jardunaldian ere parte hartu genuen.



7. JARDUNALDIA | 2023

Bizipoza Eskolaren aurkezpena

ZIPRIZTINDU ZURE INGURUA!

Azaroak 18
10:00 - 13:30

Sutegi Aretoa
USURBIL

Froga pilotoetan parte hartu duten ikastetxeen esperientzia

- Urretxindorra ikastola
- Amassorrain ikastola
- Aratz ikastola
- Uribarri eskola
- Lope de Larrea ikastola
- Amaiurko eskola
- Baztango eskolen arteko Iruritako tailerrak
- Leioako EHUko Hezkuntza fakultatea

Atsedenaldia

Elkarteen begirada

- Arnasa elkarte
- Naizen elkarte
- Ndank-ndank elkarte
- Hil Argi elkarte

Betaurrekodun solasaldia

- Amassorrain ikastola
- Aratz ikastola
- Ndank-ndank elkarte
- Bizipoza.

Eman izena!

labur.eus/bizipoza7





AZPEITIKO SANSILBESTRE INKLUSIBOA

Aurten ere iaz bezala Sansilbestrie lasterketa inklusiboa izango da, nikiak gure logoa eramango duelarik.



2023ko abenduak 31 22. edizioa

AS

Azpeitiko Sansilbestrie

Ondo bukau, hobeto hasi!

AS

- 11:00 LASTERKETA IREKIA (300 metroko inklusibitatearen aldeko jai).**
Ez dago izena eman beharrik. Ez da sailkapenik egongo.
Azpeitiko plazatik atera eta inguruko kaleetan barrena.
 - 11:30 AS LASTERKETA MOTZA 3 km (12 urtetik aurrera)**
 - 12:00 22. AZPEITIKO SAN SILBESTRIE 6 km (14 urtetik aurrera)**
- IZEN EMATEAK** (Cehienez 900 parte hartzaile lasterketa bakoitzean)

www.kirolprobak.com



Marea Urdinak eginiko publikazio honek “Creative Commons Reconocimiento-SinObraDerivada 3.0 Unported” lizentzia du

